

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2024ko UZTAILAREN 15a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, uztailaren hamabostean, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko uztailaren 08an afixatua izan zen eta 2024ko uztailaren 08an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	12	
Bozkatzailerak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna eta MOUSQUES Bernadette anderea.

Ahalordea(k): COSCARAT Jean Michel jaunak ahalordea emana zion CURUTCHARRY Antton jaunari, JUANTORENA Annie andereak MOUSQUES Bernadette andeari, OLCOMENDY Betti jaunak ITHURBURUA Daniel jaunari.

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuten: COSCARAT Jean Michel jaunak, JUANTORENA Annie andereak, OLCOMENDY Betti jaunak

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Animazio-laguntzaile lanpostu baten sortzea (31.36 oren)
- Teknika laguntzaile lanpostu baten lan denboraren emendatzea (24.7 oren)
- Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen erabakiaren onartzea
- Etxemendi lotizamenduko bidea jabego publikoan sartzeari – Jabekideen elkarteak berdeguneak zaintzeko hitzarmena finkatzea eta izenpetzea
- Irulegiko herriak eskola publikoko funtzionamendu gastuetan parte hartzea (2 ikasle)
- Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko ekainaren 10eko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2024-50. DELIBEROA-ANIMAZIO-LAGUNTZAILE LANPOSTU BATEN SORTZEA-4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio denbora ez osoko lanpostu iraunkor baten sortzea animazio-laguntzaile batendako.

2024ko uztailaren 15eko bilduma

Bana besteko asteko lanaldia honela finkatuko liteke: 31,36/35.

Lanpostu hori C sailekoa da.

Lanpostuen taula honelakoa izanen da:

Lanpostua	Dagokion maila	Hierarkia saila	Aurrekontu-kopurua	Asteko lan denbora bana besteko	Kontratatzearen oinarria enplegatua kontratupekoa baldin bada
Animazio laguntzailea	Animazio laguntzailea 2. mailako animazio-laguntzaile nagusia 1. mailako animazio-laguntzaile nagusia	C	1	31,36/35	Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L. 332-8 2 artikulua

Lanpostu hau betetzen ahalko da:

- funtzionario bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikuluan finkatu printzipio orokorraren arabera, legezko baimen berezia ukanez salbu, departamenduetako, herriko etxeetako eta haien administrazio-erakunde publikoetako lanpostu zibil iraunkorrak funtzionarioek baitituzte betetzen,
- baimen berezi baten bidez, kontratupeko langile bat hartuz Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2 artikuluko xedapenak aplikatuz, hauek kontratupeko langileak hartzeko parada ematen baitute lanpostu iraunkorretarako funtzio motek edo zerbitzuaren beharrek justifikatzen dutelarik eta ez baldin bada funtzionariorik hartu ahal izan edo mugikortasunaren kariatara edo konkurtsoetako saridunen artean.

Lan kontratuak hiru urterako hitzartzen dira gehienez eta kontratua luzatu daiteke sei urterako gehienez. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen baldin bada, erabaki berezi baten bidez egiten da mugarik gabeko eperako.

Kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanposturako 367 eta 478 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria eman ahal izanen da.

Beharrez, lansariaren barne izanen dira animazio-laguntzaileen lan alorrari doazkion primak eta ordainsariak, funtzionarioentzat finkatu funtzioei dagozkien lan alorrerako aurreikusiak, 2021eko otsailaren 26an Herriko Kontseiluak hala erabakirik.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du 2024ko buruilaren 1etik goiti animazio-laguntzaile lanpostu iraunkorra sortzea denbora ez
2024ko uztailaren 15eko bilduma

osoko, hots, 31,36/35 lan oren asteko bana beste,

lanpostu hori betetzen ahalko dela funtzionario edo kontratupeko langile bat hartuz,

kontratupeko langile bat hartzen balitz, lanposturako 367 eta 478 arteko indize gordinari dagokion ordainsaria emanen zaiola.

BAIMENA eman dio auzapezari atxikirik den lan kontratua izenpetzeko kontratupeko langile baten hartzea hautatzen balu kontratatze prozedura bukatzean,

ONARTU ditu auzapezaren proposamen guziak.

ZEHAZTU du beharrezko kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

2- 2024-51. DELIBEROA – Denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu baten lan denboraren emendatzea – 4.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari azaldu dio eginkizun anitzeko teknika laguntzaile lanpostu baten asteko lan denbora aldatzeko beharra, lan denbora ez osoan ari da (19.69 oren asteko), eta denbora gehiago behar du eginkizun gehiago betetzeko kantuan eta kanpalekuan.

Jaun auzapezak informazio gehiago eman ondoan, 2024ko ekainaren 27an Lurraldeko Batzorde Sozialak aldeko iritzia eman ondoan eta deliberatu ondoan,

Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du 2024/09/01etik goiti denbora ez osoko (19.69 oren asteko) eta gaitasun anitzeko teknika laguntzaile lanpostu iraunkorraren kentzea

egun horretan berean, denbora ez osoko lanpostu iraunkor baten sortzea (24.7 oren asteko) gaitasun anitzeko teknika laguntzaile batentzat.

ZEHAZTU du beharrezko kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldiko aurrekontuan.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

3- 2024-52. DELIBEROA - BAIGORRIKO IBARREKO SINDIKATU BATZORDEAK LUR BATZUEN TRUKATZEKO HARTU ERABAKIAREN ONARTZEA – 3.4 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak irakurri du Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen 2023ko abenduaren 15eko erabakia, Isabelle ASCONAre eta Sindikatu Batzordearen artean lurak trukatzeko. Kadastrako C N° 98,100 eta 155 lursailak trukatzeko dira kadastrako C N° 251 lursailarekin.

Jaun auzapezak zehaztasunak eman ditu trukaketa horri buruz eta Kontseiluari bozkatzea galdatu dio

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

Herriko Kontseiluak,

ONARTU DU Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen erabakia Isabelle ASCONArekin lur baten

2024ko uztailaren 15eko bilduma

trukatzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4- 2024-53. DELIBEROA - BAIGORRIKO IBARREKO SINDIKATU BATZORDEAK Carmen SETOAIN anderearekin LUR BATZUEN TRUKATZEKO HARTU ERABAKIAREN ONARTZEA – 3.4 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak irakurri du Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen Carmen SETOAIN anderearekin lur baten trukatzeko.

Honek 160 m² zabaleko C 648 lursaila eskuratu nahiko luke, eta ordainez erosten ari den D331 lursaileko zati bat emanen luke, hedadura berekoa.

Jaun auzapezak zehaztu du Sindikatu Batzordeak trukaketa hori onartu duela eta Kontseiluari bozkatzea galdegin dio.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

Herriko Kontseiluak,

ONARTU du Sindikatu Batzordearen erabakia SETOAIN anderearekin lursail baten trukatzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

5-2024-54. DELIBEROA - ETXEMENDI LOTIZAMENDUKO BIDE ETA PARTE KOMUNAK JABEGO PUBLIKOAN SARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Kontseiluari azaldu dio 2003ko uztaillean Etxemendi lotizamendua egin duen LEGARRET indibisioa lotizamenduko bideen eta ekipamendu komunaren jabe gelditu dela.

LEGARRET indibisioak, herriaren 2012ko erabakia ondorioz gabe gelditurik ere, galdegin du HERRIKO ETXEAK bere gain hartzea, lotizamenduko kideek haien baimena emanik.

Zehaztu du Oihanttipiko Bidexka eta Etxemendiko bidea herriko errepideetan sartzen eta klasatzen ahalko litezkeela, eta horretarako ez dela gehiago inkesta publikorik behar, Errepideen Kodeko L.141-3 legearen arabera herri-bideak klasatzeko eta desklasatzeko ez baita gehiago inkesta publikorik behar, salbu operazioak errepidearen garraiatze edo zirkulazio funtzioak aldatzen baldin baditu. Lotizamenduko berdeguneak errepide ez den herriko eremu publikoan sartuko litezke.

Jaun auzapezak galdatu dio Herriko Kontseiluari operazio horri buruz bozkatzea.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

ERABAKI du - kitorik eskuratzea Etxemendi lotizamenduko bideak eta parte komunak

- lotizamenduko bideak herri-errepideetan klasatzea;
 - hitzarmen baten egitea berdeguneen arta jabekideen elkarrekin bermatzeko
- Hau, atxikirik den lur-zatien maparen arabera.

2024ko uztailaren 15eko bilduma

ARDURA EMAN dio jaun auzapezari operazio horretarako desmartxen egiteko, bereziki herri-bideen mapa eta sailkapen-taula eguneratzeko

ZEHAZTU du agiri eta geometra gastuak herriak dituela ordainduko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

6-2024-55. DELIBEROA - IRULEGIKO HERRIAK ESKOLA PUBLIKOKO FUNTZIONAMENDU GASTUETAN PARTE HARTZEA 2023-2024 IKASTURTERAKO – 8.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2021eko abenduaren 17ko erabakiaren arabera Irulegiko herriak Baigorriko lehen maila publikoaren funtzionamendu kargetan parte hartu behar duela, eta orduan 900 €-tan finkatu zela haur bakoitz, eta zenbateko hori urte guzietan emendatzekoa zela.

Herriko Kontseiluari zenbateko horren bozkatzeari galdatu dio, zehaztuz argindarraren prezioen emendatzeak prezioa kargatzen duela.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

ERABAKI du 2023-24024 ikasturterako **1026 €**-ko prezioa aplikatzea haur bakoitz, Irulegiko Herriko Etxeak ordaindu behar duena lehen maila publikoko funtzionamendu kargetan parte hartzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

7- 2024-56 DELIBEROA – IPAR EUSKAL HERRIAREN ANTOLAMENDURAKO TOKIKO SOZETATE PUBLIKOKO (IEHATSP) KAPITAL SOZIALEAN SARTZEA – 7.10 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak elementu hauek oroitarazi ditu:

“Ipar Euskal Herriko Antolamendurako TSPak”, Tokiko Sozietate Publikoak (TSP), 225.000,00 €-ko kapitala du eta egoitza Maréchal etorbidea, 15, 64100 Baiona helbidean kokatua du eta Baionako Merkataritza eta Sozietateen erregistroan matrikulatu zen 2023ko agorrilaren 18an.

TSPren kapital soziala 19 akziodunen artean banatua da, eta akziodun nagusien artean Euskal Hirigune Elkargoa bada eta Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua.

Bere estatutuen arabera, TSPren xedea da bere akziodunen gaitasunen alorrean antolamendu, eraikuntza eta zaharberritze/birkalifikazio operazioak ikertzea, diseinatzea, burutzea eta ustiatzea edota kudeatzea.

Antolaketa-erakunde publikoak obratzea herriarteko eta herri blokearen eskumena da, eta horretarako tresna berezia behar da, ikerketak denboran zehar egiteko gai dena, anizteta konplexuak direnak, baita ere ekintza horietarako obrak.

2024ko uztailaren 15eko bilduma

Zuzeneko kudeaketan egin aktibitateen osagarri, Ipar Euskal Herriko Lurren Tokiko Erakunde Publikoen (LTEP), alokatzaile sozialen edo Aturrialdeko Ekipamendu Enpresaren ekintzek, Euskal Hirigune Elkargoak, bere herri batzuek eta IEHAMSk Tokiko Enpresa Publiko bat (TEP) ukan nahi izan dute bizilekuetarako antolaketa baliagarriak eta eraikuntzak egiteko ardura ukanen duena, baita ere ekipamendu publikoen, aktibitate ekonomiko eremuen, ingurumen naturalen antolaketan ardura duena.

Ipar Euskal Herriko Tokiko Bizileku-Programaren (TBP) xedeak obratzeak, eta oro har, lurralde garapena kontrolatzeko borondate publikoak obratzeak, antolaketarako ekintza publikoak azkarki garatzea dakar.

Gainera, energia-trantsizioaren alorrean eta klima aldaketaren erronkei eta Ipar Euskal Herriko Lurraldeko Klima Aire-Energia Planaren (LKAEP) helburuei ihardesteko, TSPk berritze energetikorako proiektuak eta energia berritzagarriak lurraldean garatzeko proiektuak masifikatzen segitzen du egin molde berriei eta esku hartzeko tresna eraginkorre eskertzen.

Immatrikulatu eta urte batera, TSPk bere jarduerak garatzeko eta iraunkor egiteko xedea berretsi du. TSPren kapital sozialaren emendatzeak eta akziodun berrien sartzeak helburuak kausitzen lagundu dezakete.

2024ko ekainaren 27ko deliberaren bidez, TSPren Biltzar Nagusiak bide-orri bat onartu du, eta hau plantan ezartzeak akziodun berriak onartzeko parada emanen du eta akziodun batzuek kapital sozialean gehiago parte hartzeko parada.

Bide orri horren lehenbiziko etapan akziodun ez diren elkargoek deliberatu behar dute TSPren kapital sozialean sartzeko xedea berresteko eta beren exekutiboari sozietatearekin kapitalean sartzeko moldeez (kapitalaren zenbatekoa, bozkatzeko eskubidea, organismoetako ordezkari kopurua, etab.) eztabaidatzeko baimena emateko.

Ondotik, TSPko Administrazio Kontseiluak eztabaidatuko du kapital soziala emendatzeko eta akziodun berriak sartzeko moldeak zehazki finkatzeko. Karia horretara Administrazio Kontseiluak finkatu kapital emendatzeari buruzko txostena, TSPren kontu-mandatoriaren txostena, TSPren estatutu-proiektua eta akziodunen hitzarmen-proiektua aurkeztuko zaizkie administratzaileei.

Kapital soziala integratu nahi duten elkargoek berriz deliberatu beharko dute, bereziki, beren parte hartzearen zenbatekoa zehazteko, TSPren estatutu berriak onartzeko eta akziodunen hitzarmenarekin bat egiteko, Administrazio Kontseiluaren txostenaren eta kontu-mandatoriaren arabera.

Akziodun diren elkargoek deliberatu beharko dute ere kapital sozialaren emendatzea eta akziodun berriak kapitalean sartzeko onartzeko.

TSPren Ezohiko Biltzar Nagusiak eztabaidatuko du ondotik, dokumentazio sozialaren aldaketa eta kapital sozialaren emendatzea behin betiko onartat emateko.

Helburua da Ezohiko Biltzar Nagusiak 2024 bukaera gabe deliberatzea.

Egun, Euskal Elkargoak nahi du kapital sozialeko bere parte hartzea nabarmenki emendatu, 137.000 €-tik zehaztekoa den zenbatekora iganan litzateke.

Bestalde, gaur egun, bost herriek baita ere sindikatu misto batek nahi dute TSPren akziodun izan.

Kapitalaren emendatzeak gaurko akziodunen parte hartzea diluituko luke, salbu Euskal Elkargoaren parte hartzea, bozkatzeko eskubideak aldatuko lituzke eta TSPko organoen osaketa aldatuko (Administrazio Kontseilua, Biltzar berezia, batzordeak...).

TSPek eskubide pribatuko sozietate baten abantailak dituzte, eta, beraz, antolaketa malgua akziodun publikoek kontrolatzeko segurtamenarekin.

LEKOko L.1531-1 artikuluko 3. paragrafoaren arabera, TSPek "beren jarduerak akziodunen izenean soilik egiteko betebeharra dute, lurralde elkargoen eta kide diren lurralde elkargo multzoen lurraldean".

TSPk egoki den hitzarmen oro egiten ahalko du kasik zuzeneko kudeaketan, eta proiektuen obratzeko beharrezkoak diren higigarri, higiezin, herritar, merkataritza, industria, legeko eta finantza ekintzak egiten ahalko ditu.

Gainera, bere helburu sozialarekin bateragarri den eta hura obratzean lagunduko duen ekintza oro egiten ahalko du.

2024ko uztailaren 15eko bilduma

Ondorioz, jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdatu dio

- Baigorriko Herriko Etxearen nahia berrestea, hau da, Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoko kapitalean sartzea;
- Jaun auzapezari baimena ematea Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoarekin eztabaidak abiatzeko parte hartze horren moldeei buruz;

Ikusirik Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra, eta bereziki L.1524-1 artikulua eta ondokoak, L.1531-1 eta L.2121-29,

Ikusirik Merkataritza Kodea, eta bereziki L.225-1 artikulua eta ondokoak,

Ikusirik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren estatutuak,

Ikusirik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren akziodunen hitzarmena,

Txostengilea entzun ondoan,

Kontsideraturik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoaren nahia garatzea dela eta bere jarduera iraunkor egitea;

Kontsideraturik Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoko akziodunen nahia dela akziodun berriei parte hartzeko parada ematea, bereziki kapital soziala emendatuz eta akzio berriak sortuz;

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** Baigorriko Herriko Etxearen nahia, hau da, Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoko kapitalean sartzea;
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari Ipar Euskal Herriko Antolamendurako Tokiko Sozietate Publikoarekin eztabaidak abiatzeko parte hartze horren moldeei buruz;

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 12

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

9.- 2024-57/58 DELIBEROAK- AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO ALDAKETA ERABAKIAK – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak esplikatu du kredituak ez direla nahikoak zenbait artikulutarako eta proposatu du aurrekontua honela aldatzea:

INBESTIMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
212- 196. op – antolamendua	6 000.00	021- Funtzionamendu sailaren biramendua	71 800.00
2131- 198. op – Eraikin publikoak	- 1 300.00		
2151- 114. op - errepideak	65 000.00		
2183- 203. op. – Material informatikoa	1 300.00		
275: Gordailuak eta idatzirik biltzea	800.00		
	71 800.00		71 800.00

FUNTZIONAMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
023	71 800.00		

2024ko uztailaren 15eko bilduma

615221 – Eraikin publikoak	- 71800.00		
GASTUAK OROTARA	71 800.00	IRABAZIAK OROTARA	71 800.00

INBESTIMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
2131 – Eraikin publikoak	39 000.00	021- Funtzionamendu sailaren biramendua	5 000.00
		275-Gordailuak eta ordaindu bermeak	34 000.00
	39 000.00		39 000.00

FUNTZIONAMENDUA

GASTUAK	Zenbatekoa	IRABAZIAK	Zenbatekoa
023- Biramendua inbertsio sailera	5000..00	75888- Beste	5 000.00
	5 000.00		5 000.00
GASTUAK OROTARA	44 000.00	IRABAZIAK OROTARA	44 000.00

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du aurrekontua gainean zehaztu bezala aldatzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 12
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

/

Gai orotarik

/

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea

Bilkuran hartutako deliberoak 50etik 58ra zenbakituak dira.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>